

1. ZER DIRA?

Gaitasuna neurtzeko hainbat probaz osatutako ebaluazioak dira. Hezkuntza Departamentuak urtero egiten ditu, Lehen Hezkuntzako (LH 4) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH 2) etapen erdian, Nafarroako ikastetxe guztietan, oinarrizko hainbat gaitasunen eskuratzeko-maila ezagutzeko.

2. ZER GAITASUN EBALUATZEN DITU?

LHko 4. mailan:

- | | |
|------------|-------------------------------------|
| B/D EREDUA | ⇒ Hizkuntza gaitasuna (Gaztelaniaz) |
| A/G EREDUA | ⇒ Matematika gaitasuna |
| | ⇒ Hizkuntza gaitasuna (Ingelesez) |
| | ⇒ Hizkuntza gaitasuna (Euskaraz) |

DBHko 2. mailan:

- | | |
|------------|-----------------------------------|
| B/D EREDUA | ⇒ Matematika gaitasuna |
| A/G EREDUA | ⇒ Irakurmena (Gaztelaniaz) |
| | ⇒ Zientzia gaitasuna |
| | ⇒ Hizkuntza gaitasuna (Ingelesez) |
| | ⇒ Irakurmena (Euskaraz) |

EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAK

Lege esparrua

- ◆ 8/2013 Lege Organikoa, abenduaren 9koa, 144. artikuluko 89. artikulua.
- ◆ Ikasturte hasierako jarraibideak. 216/2020 Ebazpena, ekainaren 23koa. I. Eranskina, 4.2. artikulua. II. Eranskina, 4.1. artikulua.

EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAK

2020-2021
IKASTURTEA

Ebaluazio Atala

3. NOIZ EGITEN DIRA PROBAK?

DBHko 2. mailan: apirilaren 19, 20 eta 21ean.

2021eko apirila						
al.	ar.	az.	og.	or.	lr.	ig.
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30		

LHko 4. mailan: maiatzaren 3, 4, 5 eta 6an.

2021eko maiatza						
al.	ar.	az.	og.	or.	lr.	ig.
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30
31						

4. NORK ANTOLATZEN DITU?

Probak gaian adituak diren eta ikasgela-rekin harremanetan dauden irakasle-taldeek prestatzen dituzte.

Hezkuntza Departamentuak proben prestaketa koordinatzen eta gainbegiratzeko eta koadernotxoak inprimatzeko eta banatzeko ditu.

Ikastetxe bakoitzeko irakasleek probak aplikatu eta zuzendu egiten dituzte.

5. ZERTARAKO BALIO DUTE? ORIENTATZEKO, HOBETZEKO ETA INFORMATZEKO

- Hezkuntza Departamentuak, **bere jarduerak bideratu ahal izateko**, hezkuntza-sistemaren mailari buruzko informazioa eskuratzeko eginkizuna du.
- Ikastetxeek **hobekuntza-planak** ezartzeko eta neurri espezifikoak hartzeko erabiltzen dituzte.
- Familiak eta ikasleek informazio osagarria jasotzen dute.

6. NON EGITEN DIRA?

Ikasleen ikasgelan, ikastetxeko irakasleekin.

7. NOLAKOAK DIRA EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAK?

- Zentsalak dira:** ikasle guzti-guztiek egin behar dituzte.
- Estandarizatuak:** probak berberak dira ikasle guztientzat eta egun eta ordu berean egiten dira.
- Zehatzak eta objetiboak dira.**
- Gaitasunak neurtzeko dira:** etapan zehar lortutako gaitasunak neurtzen dituzte.

8. NOLA AZTERTZEN DIRA EMAITZAK?

LHko 4. mailako eta DBHko 2. mailako ikasleek onlineko testuinguru-galdetegi bati erantzuten diote, **ikastetxearen indize sozioekonomikoa eta kulturala (ISEKa)** lortzeko aukera ematen duena. Horretan oinarrituta, ikastetxeak ebaluatutako gaitasun bakoitzean zenbatetsitako puntuazioa kalkulatu dezakegu; hau da, ikastetxe bakoitzak bere testuinguru sozioekonomikoa eta kulturalaren arabera lortu beharko lukeen puntuazioa. Inkesta honetan ikasleek emandako erantzunak erabat **anonimoak** dira (erabiltzaileak eta pasahitzak ez daude persona bati lotuta).

Ekainean hainbat txosten lortzen dira:

- Orokorra:** Nafarroa osokoa.
- Ikastetxearena:** ziklo edo departamentu bakoitzak eta zuzendaritza-taldeak nahitaez egin behar dituzte azterketa, balorazioa eta hobekuntza-proposamena.
- Banakakoa:** familia bakoitzak gaitasun bakoitzeko emaitzen gaineko txosten bat jasotzen du.

9. ONDORIO AKADEMIKORIK AL DUTE IKASLEENTZAT?

Ez. Maila gaintzea eta ikasleen orientazio akademikoa ez daude proba horien emaitzaren mende. Era berean, ikastetxearen puntuazioa ez da argitaratzen.